

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eugenio Zabala Olazabal

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Eugenio Bedaion jaio zen, Elizetxe baserrian. Aita herri berekoa zuen, Jazku baserrikoa, eta ama, berriz, Zarautzen jaioa eta txikitan Bedaioara bizitzera joana. Izan ere, Eugenioren amaren aldeko amona Aizarnakoa zen, eta aita zarautzitarra, eta Zarautzik ganadua eta trasteak hartu eta Bedaioara joan omen ziren bizitzera, bidea oinez eginda. Eugenio bera, Bedaion hazia da, baina gazte zela Alegian harakin gisa lanean hasi, eta bertara joan zen bizitzera.

Zintak

TOL-013

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-03-30
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Aitona-amonak kostaldetik Bedaioara

- **Erref:** TOL-013/002
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Familiaren jatorriari buruz hitz egiten du. Aitona-amonak kostaldetik Bedaioara joan ziren bizitzera.</p>

Transkripzioa

Aitona-amonak kostaldetik Bedaioara

- Zuen gurasok biak zien Bedaiokok?

- Nere ama etorri zan... Beno, aittona, aman... aittona ta amona zien...

Amona zan zeakoa... Buf! Aittona zan Zarauzkoa. Ta amona zan Itziarko inguru hortan hor ze herri...

- Deba o?

- Ez, beste herri txikixeok badie hor, bi o. Aizarna, Aizarnakok. Aizarna.

- A beira! Ordun, aitona-amonak kostaldekok?
- Bai. Ta nunbait ni ez nitzen... Ordun ez zuen, gurasok ez zuen ordun... gauzak ez zittuen esaten. Oain guk´e... Baiño oain askoz´e garbigo hitz eitten da /hitzeittea/ familin; esan nahi nuke, ze pasatu dan ta. Ta uste det hasarratu o zerbaitte izan zuela. Ezkonduko zien aitona ta amona bean gurason etxea. Ta ez zien ondo konpontzen nunbait ta, ordun, Bedaion zeuken parientea, Jazkun. Ta honek esan, noabaittea jun in beharra zeuken nunbait, eta esan zien: "Hemen Bedaion bazeok baserri bat hutsik". Hartu behiek, ez dakit zenbat, hiru o lau zittuen, karrok kargatu ta Zarauztik oiñez etorri zien Bedaioa. Ta bi ume zittuen; Bedaion beste hiru jaio [zizkien].
- Tartean zure ama.
- Egon, Bedaion hiru... Aber... [Frantxiska], Antoni, Iñaxio, Migel... ez, lau izango zien. Bai. [Frantxixka], Antoni... Ez, hiru neska. Ez, ez, bost zien. Bost zien. Ta nere ama zaharrena. Ta bestek... Ta geo nere ama geatu zan Bedaion etxeako; zea, baserriako geratu zan. Ta nere anaia zaharrak esaten zien geo ya zertu zanen: "Jo, zuek Aiako gaiñen, Andazarretan, hartu arba batekin, arba, makilla batekin eo, ta atzea haruntza bialduazi. Paraje hontaa nola etorri liteke handik? Handik paraje hontaa nola etorri liteke?" esaten zien harek.
- Zeiñek esaten zien hoi?
- Nere anaia zaharrak amonai esaten zion. Amonai ta ama... Beno, ama neska koskorra ekarriko zuen, ez dakit zenbat denborakoa, baiño segurasko lau o bost urtekoa igual izango zan.

2. Baserriko bizimodua

- **Erref:** TOL-013/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gurasoak eta orduko bizimodua ditu hizpide. Aita Jazkutik Elizetxera ezkondu zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Mahaian, 11 lagun izaten ziren. Ukuiluan, bost behi egon ohi ziren.</p>

Transkripzioa

Ta aitte zan... aitte hangoa zan nerea. Ta aitte ibiltzen zan, ba, bason ta hola, ta behintzat nere amakin zeatu zan, ezkondu zan. Oseake Jazkutik Elizetxea etorri zan. Ta geo, familie, ba, zortzi izan zittuen, izan giñen. Ta ikuillun bost behi. Bat antzue segurasko, bat umeik ez zun ingo. Ta sukalden, mahaien, hamaika lagun. Ta etxeko garie o artoa o zea. Ta oillaskon batzuk eo arrautz batzuk eo zerbaitte zanen, Tolosaa feria jun ta umentzako zerbaitte, oiñetako zezer. Ordun ez zeon caja de ahorros-era jun ta dirua atera ta kajeroik eta zeaik. Ta ordun holaxe moldatu behar izaten zan.

3. Baserriko diru-iturriak eta etxejabeak

- **Erref:** TOL-013/006
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Baserriko diru-iturriak zein ziren aipatzen du: azokako salmenta eta txekor salmenta. Elosegitarrek ziren etxejabeak; haiei buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

- Zuen etxea sartzen zan diru bakarra Tolosako azokatik ekarritakoa?
- Bai, bai, bai. Hure, ta geo txekor bat eo beste hazten zana. Haik. Ta errenta ´re pagatu in behar.
- Zuen etxea zan Elosegitarrena?
- Elosegitarrena, bai.
- Bedaio erdiya beaiek zuen, ezta?
- Bai, bai. Alustiza ta Elosgi zien. Hoik lehenao emen zien familia batekok, baiño gero familia ezkondu in zanen, partittu in zuela esaten zuen. Ez dakit. Ta, ordun, bat geatuko zan Alustiza ta bestea Elosgi.

4. Gastuak; errenta eta konjurua

- **Erref:** TOL-013/008
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Etxearen errenta pagatzeko lanak izaten omen ziren. Elizari ere zerbait ordaindu behar izaten zitzaion "harria ez egiteko konjuruagatik".</p>

Transkripzioa

- Erentan kontuk...
- Errenta kontue. Errenta ni ez naiz gogoratzen zenbat izango zan. Baiño behintzat hue ´re pagatzeko komeritan ibiltzen zien. Hori badakit.
- Aitzen zenduen etxian "laixte errenta pagatu beharko deu" ta...
- Bai, bai. Ta geo elizea ´re ez dakit nik zenbat eamaten zan. Konjurue itten zuen, harrie ez itteko ta ez dakit zer. Meza ateatakon itten zuen konjurue. Elizatik kanpoa atea ta apaizak eitten zun konjurue. Hure ´re ez dakit zenbat pagatzen zan. Geo ez dakit beste ze. Elizek behintzat bere zea batzuk bazittun. Ta beti... beti eziña. Beti eziñean.

5. Irin eta ardo bila, zortzi urterako

- **Erref:** TOL-013/009
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gipuzkoan errotak itxita zeuden garaian, Bedaiotik Atallura (Nafarroa) joaten ziren, Zaratetik barrena. Zortzi urterako joaten omen zen aberea hartuta irin eta ardo bila. Ardo Uztegi edo Azkaratetik hartu ohi zuen. Eugenioren amak usaimen ona zuen, eta segituan antzematen zuen nongo ardo zen.

6. Gaez, errotara

- **Erref:** TOL-013/010
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondorenean, errotak itxita zeuden. Gaez joan ohi ziren errotara; guardia zibilak guardia amaitu ondoren. Lasta-balak erabiltzen zituzten bidea argitzeko.

7. Ardoa eta mikeleteak

- **Erref:** TOL-013/011
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Ardo erosteagatik, mikeleteei hainbesteko bat ordaindu behar izaten zitzairen. Mikeleteek ez harrapatzeko, iluntze partean eta beste bide batetik ibili ohi zen.

8. Amezketarrak eta mikeleteak

- **Erref:** TOL-013/012
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Amezketarren izaera du hizpide. Amezketarrek mikeleteei zer trikimailu egiten zizkien kontatzen du.

9. Txekor bila etxera

- **Erref:** TOL-013/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrietan, txekorrak hazi ohi ziren, saldu eta dirua ateratzeko. Norberak saldu eta diru gehiago atera baino lehen, agintariak baserriz baserri ibiltzen ziren txekor horiek diru gutxiagoren truke biltzeko. Orduko Bedaioko alkateak baserritarrak salatzen omen zituen. Betelura bidean, poliziak auzoko bi mutil txekorrarekin harrapatu zituenekoa kontatzen du.

10. Osaba atxilotu zutenekoa

- **Erref:** TOL-013/015
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Osaba batek Bedaioko alkatearekin izandako gorabehera bat zela medio, guardia zibilek atxilotu egin zuten. Jesuita baten bitartekaritzari esker ez zitzaion ezer gertatu, bestela hura hiltzeko agindua emanda omen zegoen.

11. Apaizarekiko tratamendua eta harremana

- **Erref:** TOL-013/018
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:22:19. **Bukatu:** 00:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizari, berori esaten zioten. Soroan lanean baziren, eta hura pasatzen bazen, txapela kendu behar izaten zuten. Apaiza baserrietara jauna edo azken

igurtzia ematera joaten zenean, haren aurrean belauniko jarri behar izaten zen.

12. Apaizari garia eta artoa eman behar

- **Erref:** TOL-013/020
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:24:02. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizei buruz hitz egiten du. Auzotarrek garia eta artoa eman behar izaten zioten apaizari. Larunbat goizetan, berriz, aberea hartu eta haren enkarguak egitera joan behar izaten zuten.

13. Apaizari uztarekin ordaindu behar

- **Erref:** TOL-013/021
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:25:44. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, apaizari garia eman behar izaten zitzaion. Eugenioren amona hil zen urtean, harria egin zuen, eta laborea galdu egin zuten. Uzta faltan, ehorzketa diruarekin ordaindu nahi izan zuen amak, baina apaizak ezezkoa eman zien usadioa galtzen zelako. Gauzak horrela, Nafarroara joan behar izan zuten uzta bila.

14. Baimena eskatu gabe teilatura igotzeagatik...

- **Erref:** TOL-013/022
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizarekin zuten harremanari buruz hitz egiten du. Anaia pilotan zebilela, pilota teilatuan geratu eta baimenik gabe teilatura igotzeagatik izandako gorabehera kontatzen du.

15. Arrosarioa esateari utzi ziotenekoa

- **Erref:** TOL-013/025
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:30:09. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Iluntzetan, arrosarioa errezatzen zuten etxean. Egun batean, lanak luzatu zitzaizkien baserrian, eta afari mokadua egiteko gogoz etxeratu zen Eugenio eta aita. Berandu izanagatik, ama gurutze santua egiten hasi zen, eta Eugeniok gurutzea egiteari utzi eta afaria ateratzeko eskatu omen zion. Han bukatu omen zen arrosario esateko ohitura etxean.

16. Erljioa "estu" hartzen zen etxean

- **Erref:** TOL-013/026
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:33:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Etxean, erljioa nola bizi zuten kontatzen du. Erljioa "estu" hartzen zen haienean. Anai-arrebek gaztetatik nahi izaten zuten etxetik atera lanera. Tolosako Isastegieta baserrian aritu zen lanean Eugenio, "jan aldera".

17. Aste Santuak: debekuak eta sermoiak

- **Erref:** TOL-013/027
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:33:31. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Aste Santuetan, zer debeku izaten ziren aipatzen du: txistua jotzea, dantza egitea, irratia piztea... Goiz eta arratsalde joaten ziren elizara. Sermoiak oso gogorak izaten ziren.

18. Apaizaren boterea

- **Erref:** TOL-013/028
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:36:11. **Bukatu:** 00:36:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Bedaion, apaizak alkateak baino aginte gehiago izaten zuen.

19. Auzolana

- **Erref:** TOL-013/030
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:37:09. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Bedaion egindako auzolanak aipatzen ditu. Meza ondoren, bilera egiten zen zer lan, nork eta noiz egin behar zen erabakitzeko. Etxe bakoitzetik bat joan ohi zen auzolanera.

20. Eliza auzolanean berritu

- **Erref:** TOL-013/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:27. **Bukatu:** 00:40:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Bideak konpondu, eliza berritu... zituzten auzolanean. Eliza berritu zutenekoak kontatzen du.

21. Kinkea, argia egiteko

- **Erref:** TOL-013/034
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:42:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean, ez zuten argindarrik; kinkea izaten zuten. Kinkeari petrolioa bota, metxa jarri eta sua eman behar izaten zitzaion.

22. Metxazko metxeroa

- **Erref:** TOL-013/035
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:42:31. **Bukatu:** 00:43:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Lehen, tabakoa erretzeko metxazko metxeroa erabiltzen zen. Metxazko metxeroa nola zen kontaktzen du. Tabakoa errazionamenduan egoten zen. Eugenioren etxean ez zuen inork erretzen, eta osaba bati ematen zioten tabakoa.

23. Emakumeek ezin ardoa edan

- **Erref:** TOL-013/036
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:43:39. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaizki ikusia zegoen emakumeak kalean ardoa edaten ibiltzea.

24. Ur bila

- **Erref:** TOL-013/038
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:46:48. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean urik ez zutenean, ura nola eramaten zuten kontaktzen du.

25. Medikua eta sendabelarra

- **Erref:** TOL-013/040
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:49:27. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Gaixotzen zirenean, Alegiatik joaten zen medikua. Kasu larrietan deitu ohi zitzaion medikuari; ondoezetan, kamamila, pasmo-belarrak... erabiltzen ziren. Pasmobelarra arriskutsua dela dio.</p>

26. "Arrautzak Tolosara begira jaiotzen ziren"

- **Erref:** TOL-013/041
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:50:23. **Bukatu:** 00:51:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Otorduei buruz hitz egiten du. Bazkaritan, babarruna jaten zuten. Afaltzeko, berriz, porru-patatak edo baratxuri zopa izaten zuten. Arrautzak jaiotzen omen ziren, "baina Tolosara begira"; azokan saltzeko izaten baitziren. Negu partean, sardina zaharrak ere jaten zituzten.

27. Solomoak eta txorizoak oliotan, udarako

- **Erref:** TOL-013/042
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:51:06. **Bukatu:** 00:51:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txerria hiltzen zenean, solomoak eta txorizoak oliotan jasotzen ziren; gero, udaran, belarretan aritzen zirenean, jateko. Etxean asko izanik, txerriak berehala gastatzen zen.

28. Txanpon-jokoa

- **Erref:** TOL-013/045
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:52:47. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan, txanpon-jokoan ibiltzen zen. Txanpon-jokoan nola jolasten den kontatzen du.

29. Aitak txistua jotzean, pilota utzi eta etxera

- **Erref:** TOL-013/047
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:54:28. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Frontoia etxe ondoan zuten. Askotan ibiltzen ziren pilotan. Aitak txistua jotzen zuenean, pilota utzi eta etxeratu egin behar izaten zuten. Aitari errespetu handia zitzaion.

30. Bedaioko frontoia

- **Erref:** TOL-013/048
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:55:32. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Bedaioko frontoian, "txokoketan" aritzen ziren. Ume asko biltzen ziren, eta txandatuz jolasten zuten. Apustuak ere egiten ziren. Ez zen erlojurik, eta kanpai-hotsa izaten zen erreferentzia.

31. Anaiaren diru-iturriak

- **Erref:** TOL-013/049
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Anaiari buruz hitz egiten du. Dirua eskuratzeko hainbat bide izaten omen zituen. 12 urtez gero, pilota alokatzen omen zuen; "baratoa" esaten zitzaion. Larrua josi ohi zien pilotei, eta erosi ere egiten omen zituen. Nafarroara etxerako ardo bila joaten zenean, berarentzat olioia edo erosi ohi zuen Tolosan saltzeko gero.

32. Olioia, garestia

- **Erref:** TOL-013/050
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondorenean, olioia garestia izaten zen. Eugenioren etxean, Nafarroatik ekarri ohi zuten olioia. Eltzea gozatzeko, olio faltan, esnegaina erabili ohi zen.

33. Anaia, "traperoa"

- **Erref:** TOL-013/051
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:58:30. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Anaiari buruz hitz egiten du. Pilotak alokatuz, dirua ateratzen zuen. Nafarroara joan eta olioia erosteko adina. Olioia oso garestia izaten zen. Gaztetatik, "negoziantea" izan zela dio.

34. Gaztetako ibilerak; neska-laguntzeak

- **Erref:** TOL-013/053
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:00:04. **Bukatu:** 01:00:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Neska-laguntzei buruz hitz egiten du. Musuak ez ziren erraz ematen, eta bizkarretik heltzea ere... Amezketeta eta Bedaioko neska-mutilen arteko harremanaz hitz egiten du.

35. Amezketarrak

- **Erref:** TOL-013/054
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 01:00:57. **Bukatu:** 01:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Amezketarrei buruz hitz egiten du. "Asto xamarrek" omen ziren.

36. Bikote kontuak eta maiorazgoa

- **Erref:** TOL-013/057
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:02:37. **Bukatu:** 01:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bikote kontuak ditu hizpide. Normalean, inguruan bilatzen omen zen bikotea. Seme zaharrenek etxera ezkondu behar izaten zuen: horrek sortzen zituen gorabeherei buruz hitz egiten du.

37. Harri jaia

- **Erref:** TOL-013/060
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:07:50. **Bukatu:** 01:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Harri jaiari buruzko azalpenak ematen ditu. Garai batean, meza ondorenean, bazkaria izaten zen: bakoitzak berea eraman behar izaten zuen, eta, ardoa, berriz, Tolosako Udalak jarri ohi zuen. Urte batzuetan festa ospatzeari utzi egin zioten, eta azken urteetan indarra hartu duela dio.

38. Bedaio inguruko festak

- **Erref:** TOL-013/061
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:09:54. **Bukatu:** 01:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Bedaio inguruko auzoetako festei buruz hitz egiten du. Azkarateko festak: Amezketatik jendea abereekin joaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com